

ERASMUS PROGRAMAKO IKASLEEKIN IKASIZ

Learning with the Erasmus students

*Josu Amezaga
Idoia Fernández Fernández
Euskal Herriko Unibertsitatea*

Resumen

Una de las consecuencias del creciente paso de estudiantes por múltiples universidades europeas gracias al programa Erasmus (unos 700 anuales desde la UPV/EHU hacia más de trescientos centros) es el acercamiento de la propia universidad hacia otros modelos de enseñanza-aprendizaje. Así desde el convencimiento de que la vivencia personal en Erasmus puede y debe convertirse en conocimiento significativo compartido entre discentes y docentes, hemos desarrollado una experiencia de investigación con un grupo de veinte estudiantes de nuestra universidad durante su curso en un centro extranjero. Para ello hemos utilizado la plataforma virtual *moodle*, la cual ha permitido poner en comunicación a este grupo, disperso por toda Europa, y a los responsables del proyecto. Asimismo hemos realizado un análisis cualitativo de los debates surgidos en la plataforma, utilizando el software NVivo7, que nos ha permitido extraer las conclusiones. Algunas de ellas ilustran diferentes modelos pedagógicos entre las universidades del norte y del sur europeos, así como la valoración que las y los estudiantes hacen de ellos. Otras van más allá de los objetivos inicialmente planteados y nos hablan de las necesidades de comunicación de estas y estos estudiantes durante el periplo (administrativas, afectivas, vivenciales o de construcción de sentido de lo que están viviendo), así como de la idoneidad de instrumentos como *moodle* para hacerlas frente.

Palabras Clave: *Formación universitaria, plataformas virtuales, Programa Erasmus*

Abstract

One of the consequences of the increase in the number of students studying abroad at numerous European universities thanks to the Erasmus program (some 700 a year from the University of the Basque Country study at over 300 European centres) is that the university itself becomes acquainted with other models of teaching and learning. Hence, out of our conviction that personal experience in Erasmus can and should become meaningful knowledge shared between students and teachers, we developed a research project with a group of twenty students from our university during their course of study at a foreign centre. For this purpose we used the *moodle* virtual platform, which made it possible to put this group, dispersed throughout Europe, and those directing the project into contact with each other. Similarly, using NVivo7 software, we made a qualitative analysis of the debates taking place on the platform, which has made it possible for us to draw several conclusions. Some of these illustrate the different pedagogical models in the universities of the north and south of Europe, as well how these models are evaluated by the students. Other conclusions go beyond our initial aims, and refer to the training and communication needs of these students (administrative, affective, experiential or the need to give meaning to what they are experiencing) during their time abroad, as well as the suitability of tools like *moodle* for meeting these needs.

Key words: *University training, Virtual platforms, Erasmus Program*

Correspondencia: Josu Amezaga Albizu. Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación. Campus Universitario de Leioa. 48940 Leioa. E-mail: josu.amezaga@ehu.es. Idoia Fernández Fernández. Facultad de Filosofía y Ciencias de la Educación, Avda. Tolosa, 70. 2009 Donostia. E-mail: idoia.fernandez@ehu.es.

Sarrera

Urtero-urtero 600 eta 700 ikasle artean joaten da, UPV/EHUtik, Europako hiruehun baino gehiago unibertsitatetara ikastera, Erasmus programaren eskutik (http://ec.europa.eu/education/programmes/socrates/erasmus/erasmus_es.html). Mugimendu horren inplikazioak ikasleen heziketaz haratago doaz, eta dimentsio anitzekoak dira: beren garapen pertsonalaren mailan gertatzen direnak, prestakuntzan zein lanean etorkizunean eskuragarri izan daitezkeen lotura eta harremanak, eta abar. Zentzu horretan UPV/EHU ere badoa, ikasle hauen eskutik, Europako beste unibertsitate batzuetara hurbiltzen. Aldi berean bestelako herrialdeetara zabalduz doa ere UPV/EHUtik ateratzen diren etorkizuneko profesionalen multzoa. Horrekin guztiarekin esan daiteke, beraz, programa honen ekarpenak onuradun zuzenen eremu pertsonala gaintitu eta arlo sozialera zabaltzen direla. Gure iritziz hala baieztatu daiteke, kontuan hartuta jadanik milaka direla esperientzia aberasgarri horretatik igaro diren euskal ikasleak.

Programaren onura sozialen artean kokatuta, ez zaigu txikia iruditzen egun UPV/EHUn irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan erabiltzen ditugun ereduak egin diezaiekeen ekarpena¹. Ehunka unibertsitatetan zehar sakabanatuta, oso esperientzia akademiko ezberdinekin egiten dute topo ikasle horiek, eta horrek balio bide die UPV/EHUn ezagutzen dituzten ereduengatik gogoeta egiteko zein eredu berriak barneratzeko. Ikastaroen antolakuntza, curriculumaren eraketa, metodologia didaktikoak, irakasle-ikasle zein taldekideen arteko harremana, ikasketa teknikak eta beste zenbait arlotan errealitate berriak deskubritzen dituzte ikasle horiek beren atzerrialdian, ikasle gisa ere beren burua aberastuz.

Ikasleen gogoeta, sintesi eta ezagutza horiek guztiak ordea berentzat gordeta geratzen dira baldin eta trukatzeko biderik asmatzen ez badugu. Horixe izan da gure proiektuaren helburua: funtsean, hain errealitate anitzetan murgilduta dauden ikasleen esperientziak partekatu, haien bezalaxe irakaskuntzan aritzen garenontzat ere aberasgarria izan daitezkeelakoan.

Gaude urtero-urtero ikasle horiek eraikitzen duten ezagutza bildu eta emankor bilaka daitekeela, horretarako bideak jarriz gero. Horrela, lehenago aipatu ditugun Erasmus programaren onura sozialen artean UPV/EHurentzat ikasle horiek suposatzen duten ezagutza metatua ere aurkituko dugu. Hemen irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen inguruko ezagutzaz ari gara eta guk, irakasle gisa, asko dugu hortik ikasteko: geure ohiko eredu eta oinarri pedagogikoetatik hasi, eta zenbait teknika eta baliabideetaraino.

Metodologia

Egitasmo hau gauzatzeko UPV/EHUko Komunikazio eta Gizarte Zientzien Fakultatek 2005/2006 ikasturtean Erasmus programaren barruan atzerrira joan diren ikasleekin lan egin dugu. Fakultate honetan ez daude sistematizaturik Erasmus programako ikasturtearen osteko esperientzien trukaketa eta kontrastea. Ikasleek txosten bana aurkezten dute, baina hortik ez da ezagutza metaturik osatzen. Era berean, ikasturte horretan zehar esperientzia berria bizitzen ari diren ikasleen arteko

harremana arlo pertsonalera mugatzen da, beren kabuz burutzen baita inolako sistematizaziorik gabe. Guk komunikazio eremu bat osatu nahi izan dugu, denon artean (ikasleak eta irakasleak) esperientziak kontrastatu eta gogoetatzeko.

Fakultate honetatik 50 inguru ikasle joan ziren atzerriko unibertsitate batera 2005/2006 ikasturtean, eta horietatik 17rekin egin dugu lan. Azpitalde hau aukeratzearen arrazoiak honakoak dira. Ikasle horiek denek ezagutzen zuten, alde zurretik, proiektuaren koordinatzailea, irakasle izan baitute, eta horrek denon arteko komunikazioa erraztu du. Hurrengo taulan ikus daitezke talde honen ezaugarri nagusiak:

Ikasleak	Lizentziatura	Harrerako unibertsitatea	Herrialdea
A1, A2	Ikus-entzunezko Komunikazioa	Università degli studi di Roma "La Sapienza"	Italia
B1	Soziologia	Prifysgol Cymru Aberystwyth	Britainia Handia
D1, D2	Ikus-entzunezko Komunikazioa	University College Worcester	Britainia Handia
E1	Ikus-entzunezko Komunikazioa	Université Michel de Montaigne-Bordeaux III	Frantzia
F1	Publizitatea eta Harr.Publikoak	Instituto Politécnico de Setúbal	Portugal
G1, G2	Ikus-entzunezko Komunikazioa	Karlstads universitet	Suedia
H1, H2	Ikus-entzunezko Komunikazioa	Danmarks Journalisthøjskole– Aarhus	Danimarka
I1 I2 I3	Ikus-entzunezko Komunikazioa Publizitatea eta Harr.Publikoak Kazetaritza	Aarhus Universitet	Danimarka
J1	Kazetaritza	Université de Liège	Belgika
K1 K2	Ikus-entzunezko Komunikazioa Publizitatea eta Harr.Publikoak	Hogeschool van Utrecht	Holanda

Ikasle hauekin lan egiteko irakaskuntza birtualean hedatuta dagoen *moodle* plataforma erabili dugu (<http://moodle.org/>), zehazkiago UPV/EHU barruan dugun Gipuzkoako esperientzia pilotoko gunean (<http://scpx74.sc.ehu.es/moodle/>). Bertan eztabaidagune bat zabaldu dugu, gai ezberdinen arabera antolatuta: Lurreratzearen Foroa (harrerako unibertsitatera iritsitakoan jasotako lehen sentipen eta inpresioen ingurukoak); Hizkuntzaren Foroa (hizkuntzaren inguruan izandako esperientziak eta balorazioak); Curriculumaren Foroa (burutzen ari diren ikasketen orientazio eta antolakuntzari buruzkoak); Baliabideen Foroa (aurkitu dituzten baliabide zein metodologia didaktikoei buruzkoak); eta Jarrera eta Harremanen Foroa (unibertsitate barrukoak: irakasle-ikasle-instituzioa). Foro hauetan eginiko ekarpenak ikasleen esperientzian oinarrituriko dokumentu pertsonal gisa hartu ditugu (teknika

biografikoen produktuak/datuak hain zuzen) baita ikerketako paradigma kualitatibotik eratu eta tratatu ere (Bogdan eta Bliken, 1982; Taylor eta Bogdan, 1992; Gil Flores, 1994; Contreras,1999).

Gunea 2005eko Irailean zabaldu genuen, eta eztabaida Urrian hasi zen, ikasle gehienak behin harrerako lekuan egonik eta Interneteko sarbidea ziurtaturik. Ikasturte osoan zehar irau du eztabaidaguneak zabalik, Maiatzaren amaiera aldera azken ekarpenak egin zirelarik.

Ikasleen partehartzea ez da homogenea izan, batzuek eztabaida guztietan hainbat mezurekin parte hartzen zuten bitartean, beste batzuek eztabaida soil batzuetan edo mezu gutxiarekin arte hartzen baitzuten. Orotara, 160 ekarpen idatzi jaso ditugu.

Emaitzak

Erasmus programaren eskutik joandako ikasleekin burutu dugun hausnarketa eta informazio trukaketa esperientzia honetatik irakaspen franko atera dugu. Bi atal nagusi bereiziko genuke. Batetik ikasleen prestakuntzari eta orientazioari erreparatuta plataforma birtualek eskura jartzen dizkiguten aukera pedagogikoak, eta, bestetik, aipatu plataformetan ikasleen ekarpenetatik ondoriozta edota eraiki daitezkeen ezagupenak. Beste modu batean esateko, esperientzia honen prestakuntza eta ikerkuntza balioak.

Moodle plataforma Eramuseko ikasleen topagune: prestakuntzarako balioak.

Unibertsitatean dauden ikasleen heziketan dugun erronka nagusietako bat helduen munduan, eta luzapenez, lanbidearen munduan sartzeko baldintzak sortzea da. Nahiz eta gure fakultateetan adin guztietako geroz eta pertsona gehiago aurkitzen dugun, egia ere bada oraindik ikasle gehienak Batxilergotik zuzenean datozen ikasleak direla. Hau aitortzeak, soslai soziologiko jakin bat duen gazteaz mintzatzea eramaten gaitu: 19-23 urte bitartekoak, ekonomikoki guraso/helduen menpekoak, haien etxean bizi direnak, eta gehienetan lanbide munduan sartu gabeak. Horrelako inguruabar hurbil eta babestuetan bizitzetik bizimodu independentea izatera igarotzeak helduen munduan sartzeko ezinbesteko baldintza dugu, zeinean baldintza ekonomikoez gain baldintza pertsonalak eta sozialak ere tartekatzen baitira. Zer esanik ez, baldintza pertsonal eta sozial horiek azkartzean datza unibertsitateko heziketa, nahiz eta batzuetan prestakuntza tekniko soilera mugatzen den.

Erasmus programa, gure iritziz, ikasleen autonomia areagotzeko oso esperientzia eraginkorra da: herri ezezagun batera joan ikastera, ohiko erreferentziatzko helduak ondoan izan gabe. Hala ere ez dugu uste gure unibertsitatean auzi administratibotik landa ezer planteatzen denik, hau da, ez da profitatzen benetan duen izaera hezitzailea.

Moodle plataforma Erasmus programako ikasleen inguruak aztertzeke helburuz martxan jartzean, ikasleen eta irakaslearen artean gogoeta gune birtuala gauzatu da eta ikasleen garapenean funtsezkoak diren zenbait arlo landu ahal izan ditugu:

- a) Kanpoko unibertsitateetara heltzean sor daitezkeen zailtasun administratiboei irteera eman. Tresna hau Erasmuseko koordinatzaileen eskuetan jarrita, informazioaren joan etorriak askoz ere eraginkorragoak izango lirateke, ez bailirateke mugatuko koordinatzailearen eta ikaslearen arteko harremanera baizik esperientzian dauden guztien arteko harremanera. Kasu hauetan irtenbideak eta informazio esanguratsuenak edozein partaideengandik etor daitezke, ez halaberharrez koordinatzailearengandik. Beraz, elkarrekintza eta elkarren arteko laguntza puri-purian daude planteamenduan.
- b) Sentipenen eta emozioen azterketa. Batzuetan ikasleak nahiko bakartuta egon daitezke, hizkuntza batetik eta ezagun falta bestetik. Horrek ikaskuntza aukerak oztopatu ditzake, ez badute sentitzen dutena adierazteko gune aproposik. Foroetan sentipen hauei atea ireki behar zaie, idazkuntzak barrenak baretzea eta sentimenduak hobeto ulertzea ahalbidetzen ditu-eta.
- c) Egoera berean daudenekin taldea sortu. *Erasmusak* Europako unibertsitateetako ikasle kategoria bat dira (*international students*). Unibertsitate hartzaileetan erregimen berezian bizi dira, eta lagun nomada modukoak dira bai ikaskideentzat baita irakasleentzat ere. Behin-behinekotasuna da euren ezaugarriarik nabariena. Ezin da pentsatu ere egin erasmusak unibertsitatean beste ikasle arruntak bezala tratatzea, ez horixe, bereziak dira. Eta horrexegatik hain zuen euren artean talde bat sortzeak, birtuala den arren, elkarren esperientziari kokapen jakin bat ematea da (nongotasun-identifikazioa). Talde horretan bideratzaile lana egiten duenak funtsezko heziketa rola joka dezake ikasleen garapen pertsonal eta sozialean.

Esperientzia txiki hau aurrera eraman ondoren konturatu gara UPV/EHUn Erasmus programaren koordinatzaileen eginkizunak hobeto gogoetatu behar ditugula, ez bakarrik euren lan administratiboa hobetzeari begira, baizik eta euren rol formatiboari zentzua emateari begira. *Moodle* bezalako plataforma malguak eta parte-hartzaileak horretarako erreminta aproposa direla frogatu ahal izan dugu esperientzia honetan.

Erasmus programako ikasleen lekukotasunak unibertsitate ereduak ikertzeko lanabes

Erasmuseko ikasleekiko esperientzia hau abiarazi genuenean, argi genuen ikasleen lekukotasunetatik (Bolivar, Domingo, Fernández, 1998 eta 2001; Gil Cantero, 1997 eta 2000; Woods, 1998) asko ikas zitekeela beste unibertsitateen funtzionamenduari buruz. Gaur, urtebete geroago, Europako unibertsitateen diagnostikoa ez dugun arren (hori ikertzea berrikuntza proiektua baino ikerkuntza proiektua beharko baikenuke), hipotesi bat formulatzeko moduko datuak ditugula esango genuke. Izan ere, ikasleen lekukotasunak aztertu ondoren² mendebaldeko Europan bi estilo nagusi atzeman ditugu, unibertsitatea irudikatze, antolatze, kudeatzeko eta pedagogikoki gauzatzeko orduan. Alde batetik Ipar Europako

unibertsitate eredu dei genezakeena daukagu, zeinean Danimarkan, Suedian, Holandan eta Ingalaterran egon diren ikasleen lekukotasunak sartzen baitira; eta bestetik Hego Europa zeinean Frantzia, Italia eta Belgikakoena sailka baitaitezke. Azpimarratu nahi dugu ondoren azalduko duguna hipotesi baino ez dela baina dauzkagun datuekin oso oinarri sendoa duela ematen du. Era berean, sarreran aipatu dugun bezala ikasleen ekarpenak ez dira homogeneousak izan kopuruari dagokionez. Hori dela-eta informazio gehiago jaso dugu unibertsitate batzuei buruz beste batzuei baino. Joera gisa, esan dezagun Ipar Europako unibertsitateetara joandako ikasleek ekarpen gehiago egin dituztela, batez beste, Hego Europakoetara joandakoek baino.

Mugak muga, bi unibertsitate eredu inguruko hipotesiari eusteko nahikoa informazioa jaso dugulakoan gaude. Izan ere kodetu ditugun zazpi kategorietatik seitan mantentzen da polarizazio moduko bat ipar eta hegoaldeko ikasleen egoeretan. Hipotesi hau egitera eramaten gaituzten kategoriak honako hauek dira:

- a) Unibertsitatearen antolamendu orokorra, Erasmus programaren barnean iristen diren ikasleen beharretatik begiratuta
- b) Erasmuseko ikasleei unibertsitate bakoitzak egiten dien harrera prozesua
- c) Unibertsitateko baliabideen kopurua eta nolakotasuna
- d) Unibertsitateko ikastaldeen tamaina
- e) Irakas-ikas prozesuetan erabiltzen diren metodologiak eta modalitateak.
- f) Hizkuntzaren menderakuntza

Kategoria hauen inguruan eginiko triangulazioetan datuak saturatu egin dira, esangura handia sortuz. Azkenerako utziko dugun kategorian berriz (ikasketen orientazioa alegia) ez dago hori esaterik, lekukotasun nahikorik ez delako ekotzi gaiari buruz (hau normalean hegoaldeko unibertsitateekin gertatu ohi zaigu).

Analisiaren emaitzak kategorien arabera azalduko ditugu, lehenik hipotesiari zentzua ematen diotenak, eta gero aipatu dugun azkena. Irakurleak ikusiko duen bezala, kategorien artean dauden loturak oso estuak dira eta bere osotasunean aipatu dugun unibertsitate estiloa osatzen dute. Azter ditzagun bada banan bana.

Unibertsitatearen antolamendu orokorra, Erasmus programaren barnean iristen diren ikasleen beharretatik begiratuta

Metodologiako atalean azaldu dugun bezala, foro eta galdera desberdinak luzatu dizkiegu ikasleei ikasturtean zehar. Lehenengoa hain zuzen ikasleek hara heltzean aurkitu zuten egoeraren berri izatea izan zen. Gure aldeko jakinmin hau arras justifikatuta dagoela uste dugu: UPV/EHUtik zenbait urrats egin behar dira ikasleak hara joan aurretik, eta gero harrerako unibertsitateetan ikasleen antolakuntzazko harrera nola burutzen den funtsezkoa da hemengo lana ere hobetzeko (argi dezagun antolakuntzaz mintzatuko garela hemen, harreratik bereziturik, ulerturik azken hau gehiago lotzen dela harreman pertsonalekin eta heziketazkoekin).

Ikasleek gaiari buruz emandako testigantzan bi errealitate kontrajarri irudikatzen zituzten: alde batetik iparraldeko multzoko unibertsitateen erabateko ordenua eta antolamendua; bestetik hegoaldekoan aurkitu zuten antolamendu eza. Esan dezagun hegoan egon diren ikasleek gai honetaz egin dutela ekarpen gehien.

Iparaldeko unibertsitateetan ordenu eta antolamendu zehatza aurkitu zutela esatean ondokoaz ari gara hitz egiten:

- Erasmuseko koordinatzaile adeitsu eta konpetenteak (adibidez: ikasle guztiakin e-mailez komunikatu eta arazoak banan bana konpondu; matrikula egin; informazio ugari eta zehatza eman herrialdeari buruz). Horiei esker matrikula eta egoitzari buruzko zailtasun asko bideratzen dira.

Worcesterreko unibertsitateari buruzko lehen inpresioa oso ona izan zen. Egia da, Oihanek esan bezala lehen egunean kalean botata utzi zigutela mapa ziztrin batekin gure hall (erresidentzia) aurkitzeko, baina handik aurrera asko saiatu dira herria eta unibertsitatearen funtzionamendua erakusten, Oihanek azaldu bezala. Hala ere, aipatu beharra daukat asko zor diogula gure "amatxo" ingelesari, Lois Lewis. Bera da Nazioarteko Bulegoko arduraduna, eta edozein arazo izanez gero, EDOZEIN, berarengana jo besterik ez dugu, denetarako erantzuna eta soluzioa baitu. (D1)

- Sortzen diren arazoei erantzuna emateko azkartasuna eta malgutasuna (adibidez hizkuntz zailtasunak dituztenekin ingelesezko eskolak edo berehalako bitartekariak, batzuetan ikasleak, ikaslearen jatorrizko hizkuntza dakiena eta zubi lan hori egin dezakeena).
- Ikasgaien tokiak eta ordutegiak guztiz zehaztuta (pentsa dezagun ikasgaiak ez direla beti toki berean ematen, hiriko toki batetik bestera ibili beharra izaten dela batzuetan), zentzu horretan informazio idatzi ugari bai Internetetik bai tokian bertan ere.

Sartu eta segituan guztia xehetasun guztiarekin antolaturik zegoela ohartu nintzen. Ez dakit agian danesen izaera horrelakoxea izango da, baina iritsi orduko lau hileko guztian izango genuen ordutegia eman ziguten. Hau ez da arraroa Euskal Herrian, baina kontuan harturik hemen egunero klase desberdinak, leku desberdinetan eta irakasle desberdinekin izaten ditugula izugarrizko koadernoak eman ziguten: Abenduak 7 asteazken 9:00-11:15 ez dakit nik zer, 11:15-13:00 badakit nik zer... gu guztiz beldurtuta noski, tako guzti hori ordutegia bakarrik, imajinatu nolakoak diren apunteak. (H1)

Hegoaldeko unibertsitateetan honako hau atzeman dugu:

- Erasmuseko ikasle asko heltzen direla (behintzat Erroman eta Liejan; ikasleek 200 eta 300 ikaslez hitz egiten dute), eta horrek antolamendu handiagoa eskatzen du.
- Ikasleek zailtasunak euren kabuz konpondu behar izan dituzte, informaziorik gabe eta sarritan itsumustuka.

Labur labur esateko, lehen inpresioa hemen esango luketen bezala, "casino" (desastretxu) handi batena izan da. Eta egunak pasa ahala errealitatea hori

bera dela konturatzen hasi naiz. Ordutegiak klaseak hasi baino egun batzuk lehenago agertu dira, Steffano Idolo erasmuseko koordinatzaileak astean ordu bat inguru egiten du lan eta gogorik ez badu, beste egun baten etortzeko esaten dizu, nahiz eta bere lan ordua izan. Klaseak behin eta berriz atzeratzen dizkigute, oraindik ez dut oso argi noiz hasiko garen. Italiarako ikastaroa ere hor dago zintzilik ordutegi baten zain. (A2)

Beno, arazoa zera da, iritsi nintzen egunetik inork ez didala ezer ere esplikatu, ez irakasgaiei dagokionez, ez materialari dagokionez, ez non, ez noiz, ez ezer... eta norbaiten azalpena "behar" dudala diodanean, zera diot: norbaitek esan beharko dit, ikasgaiak aukeratu aurretik, klaseak toki desberdinetan ditudala (toki desberdinetan esateak, Erroman, ez du inoiz 10 min esan nahi. Beraz, klase bat 5etan bukatzen badut, eta aukeratu dudana hurrengo 5etan hasten bada... ba gauzak hartu, korrika autobusera, edo beste autobus hura ta gero metroa ta horrela lehenago helduko naiz... ta halere ordu-erdi tartatuko dudala nahitaez) hau guztia alde aurretik jakin beharko nukeela alegia. (A1)

Belgikan ere antolakuntza ere nahiko eskasa dela. Hemen inor ez dizu inolako argibiderik ematen ta papeleoa nahiko poliki doa. Adibidez hemengo unibertsitateko matrikula garaia izugarritzko kaosa izan zen. Imaginatu 350 erasmus baino gehiago eta pertsona bakarra denon matrikula egiteko. Gero, beste koordinatzaile batengana bidali gintuzten. Bere e-maila ta bulegoko orduak eman ondoren desagertu egin zen ta orain arte ez dakigu ezer. Gainera ez dago inoiz bere bulegoan ta ez ditu e-mailak erantzuten. (J1)

Esaten genuen bezala, zaila da dauzkagun datuekin baieztapen borobilegiak ateratzea, eta gure ikasleek izan dituzten esperientziak inguruabar jakinetan jarri behar dira. Baina dimentsio honetatik bai azpimarratu nahi genuke datu garrantzitsu bat: Erasmuseko koordinatzailearen izaera eta jarrera zein garrantzitsuak diren prozesuaren antolakuntza eta administrazio izaerako hastapen hauek arrastatsuak izan daitezten. Eta honetaz kontzientzia hartu beharra daukagula uste dugu, batez ere unibertsitatea bezalako erakunde batean profesionalek harremanetan sartzeko orduan ditugun erak, ikuspegiak eta jokamoldeak gure lan profesionalaren parte ere badirela aitortzeko eta geureganatzeko. Sarritan harremanetarako gaitasun hauek arinen alboratzen ditugunak dira, nahiz eta praktikan trebezia teknikoak bezain garrantzitsuak izan zerbitzuak taxuz gauzatzeko.

Erasmuseko ikasleei unibertsitate bakoitzak egiten dien harrera prozesua

Egie esan, erasmus ikasleen harrera koordinatzaile taldearen inplikazioa eta lan egiteko gogoaren ondorioa dala uste dot. (A2)

Nahiz eta aurrekoarekin oso lotuta dagoen, merezi du, gure ustez, Erasmus programaren alde administratiboa (joan aurreko tramitazioak, matrikulak...) eta ikasleei zuzenean egiten zaien harrera desberdintzea. Harreren kontu honetan ere, aurreko dimentsioan aipatzen genuen bereizketa hori mantentzen dela esan genezake.

Datuei begiraturaz, hegoaldeko unibertsitateetako ikasleek antolakuntzari buruz esandakoari apenas ezer gehitzen ez dioten bitartean, iparraldera joandakoak xeheetasunetan sartzen dira, topikoz hain hotzak diren iparraldeko jendeen jarrera hartzailea eta beroa azpimarraturaz. Egoera hau, beste dimentsioetan ere errepikatu dena (iparraldeko ikasleek hegoaldekoek baino askoz ekarpen gehiago egitea), hiru egoeren eraginpean suertatu dela esango genuke: a) Interneten eskuragarritasun maila; b) ikasle kopurua; d) aurkitzen zutenak eurengan sortarazten zuen harridura maila.

Azken egoera hau da orain axola zaiguna, batez ere hemen egiten dugun analisiaren zentzua argitze aldera. Kasu honetan harridura maila lotuta dago ikasleek unibertsitate hartzaileaz duten ezagupen handiago edo txikiagoarekin, hau da, inguruan duzuna zenbat eta ezagunagoa izan hainbat eta kontatzeko gutxiago; alderantziz, zenbat eta ezezagunago hainbat eta kontagarriago. Gure ustez, aldagai honek hein handi batean eragina izan du ikasleen produkzioan eta izango du pisua halaber egiten ari garen datuen interpretazioan.

Harrera moduak oso desberdinak dira, eta, Erromako unibertsitatean ezik, gainerakoetan “hartuta” sentitu dira gure ikasleak. Lekukotasunen irakurketatik, aitzitik, harrera hauetan estrategiak anitzak direla eratoritzen da, batzuk landuagoak eta luzeagoak, eta besteak, puntualagoak baina ez horregatik eragingabeak.

Ezaugarri azpimarragarriak dira, gure ustez, “introduction week”, hots, aste bat nazioarteko ikasleei zuzenduta, inguruabar berria ezagutzeko, eta ikasle bakoitzari ezartzen zaion “host student”-aren figura.

Oso harrera beroa jaso genuen Karlstadeko Unibertsitatearen partetik. Hainbat ekintza antolatu zizkiguten Exchange Studentoi lehenengo aste bietan, "introduction week" delakoan.

Ikasleen Pubetatik ibilalditxoa, herria gida turistikoarekin bisitatzea, jolas tipikoak...

Gainera hitzaldi ederra izan genuen lehen astean herriko "instituziorik" garrantzitsuenen eskutik: Polizia burua (emakume galanta), Ikasleen elkarteko kideak, "gazteen elizako" artzaina, migrazio ofizinako langilea eta abar. Beste edozein herrialdetan Eskuin Muturreko lirartekeen ekintzak hemen naturalitate eta lasaitasun osoz egin genituen, demokrazia eta ongizatea zer den dakien herrialde bati dagokion modura.

Erresidentzia alde zurretik (pare bat hilabete zurretik) dagoeneko hartuta geneukan, eta bertora autobusez iristean unibertsitateko Nazioarteko Harremanetako jefa (txandalean) eta bakoitzak asignatuta geneukan Host Student-a geure bila etorri ziren.

Horrelakorik bai ote EHUN? (G1)

Harrerari dagokionez, ezin gara kexatu, etorri eta gure gelan orri batzuk genituen antolatutako guztia azalduz. Hurrengo egunean, batzar bat izan genuen Erasmuseko guztiak eta antolakuntzan dauden pertsonak lunch eta guzti! Eta lehenengo astean zehar gure tutorea ezagutu genuen, ikasgaiak aukeratu genituen gizon baten laguntzaz, herrira bisita gidatua izan genuen,

asteburuan irteera bat...Eta ingeleseko test bat egin ziguten, astean behin nahi izanez gero ingeleseko klaseak hartzeko dohain, kirol talde ezberdinetan parte hartzeko aukera eman ziguten...egia esan, hemen ekimen asko antolatzen dituzte, ikasleen elkarteak saiatzen dira laguntza ematen eta ikasleen partehartzea bultzatzen, ikasleak unibertsitatearen parte dira hemen, ez da klasera joatea bakarrik. Orain, hemen hilabete t'erdia eman ostean, antolakuntza oso ondo dagoela uste dut, eta EHU-n holan den zalantzan jarrita hasi naiz... (D2)

Egia esan, harrera oso ona izan dugu Bordeleko unibertsitatean. Lehenengo egunetan pisu eta erresidentzia bila gabiltzala unibertsitateko nazioarteko harremanetako zailetik laguntza handia jaso baikeuen. Zail berdinak ere, egun pare batetarako integrazio prozesurako plana prestatu zuen eta bertan, errektorearekin gosaria barne!!! (E1)

Unibertsitateko baliabideen kopurua eta nolakotasuna

Suedian eta Danimarkan egondako ikasleak izan dira azpiegitura eta batez ere Interneteko sarbide eskuragarria gehien azpimarratu dutenak. Oso nabarmena da hango unibertsitateetan ordenagailuak eta lotuneak eskuragarriak eta kalitatezkoak direla hemen ohituta gaudenarekin erkatuz gero, eta honek erraztu egin du, zer esanik ez, ikasleek gure esperientzian parte hartzeko aukera. Egoera hori oso bestelakoa izan da Italian edo Belgikan (ikasleek gure plataforman sartu ahal izateko, batzuetan, ziber-kafera joan behar izaten zuten).

Antzeko zerbaitekin gertatzen da ikastaldietan erabiltzeko baliabideekin (proiektoreak, pantailak) eta ikus-entzunezko baliabideekin (edizio-mahaiak, kamerak...) -ez dezagun ahaztu ikasle gehienak Informazio Zientzietakoak direla eta euren prestakuntzako atal garrantzitsu bat tekniko dela-. Kasu honetan errepikatzen da orain arteko dikotomia: iparraldean ugari, hegoaldean eskas. Azken hauek Leioako baliabideak estimatzen zituzten, unibertsitate hartzailetan zeuden baliabideak ikusita.

Ni eta Ane gauden eraikuntza, ez da beste munduko gauza baino gela guztietan internet, proiektore, arbela ikaragarriak (tolestu eta guzti egin daitezkeenak)... ditugu. Bestela, komun (garbiak eta papelarekin, eta baita krisketekin ere), ikasteko ikaragarritzko gelak... eta gurea "kutrenetako" bat da. Kanpus zentrala ikaragarria da. Laku bat eta guzti ditu eta!!!! (eta ahatek... mas xalaus!!!) zer izango du... Orioko tamaina edo?!?!? Busa kanpusen barrena joaten da eta fakultate bakoitzean paradak egiten!!!! Eta eraikuntzak?!?! Ama, ahaztu ditut dagoeneko Leioako leihororketak... Adibide bat jarriko dizuet. Hasierako egunetan, iritsi bezain laster, kanpuseko "auditorio" batean sartu gintuzten. Izugarri handia, eskalonatua, kriston pantailarekin, altabozak leku guztietan, ikasle bakoitza bere mahai tarte eta bere argitxoarekin... izugarria! Eta konferentzia hasi eta argiak pixkanaka jaisten joan ziren... eta baita pertsianak ere! Automatikoki...

Noiz ez dugu arazorik izan EHU-n bideo VHS bat ikusteko?!?! (I2)

200 ordenagailu, kristalera itzalak, aire epel epela barruan... ezin hobetu munduko ezergatik ere (...) Gauzarik harrigarriena? deigarriena? ba horixe. Eta ordenagailuak "badabiltzala" eta "libre daudela" (#beti#) ohartzera. Ez beste leku batzuetan bezala. (G1)

Egia da Leioako unibertsitatea itsusia dela, eta espero det unibertsitatea berritzeko proiektu hori aurrera ateratzea. Baina Jonek esaten duen bezala, eraikinak ez du unia hobetzen. Adibidez hemen oso material gutxi dago lan egiteko. Leioan ordea tb eta irrati estudioak, editai gelak, tb kamerak, argazki kamerak... denetarik daukagu. Denok badakigu ez dela puntako teknologia eta editai gela guztietan beti dagoela ez dabilen aparailuren bat, baina gutxienez badaukagu zoezer. (J1)

Unibertsitateko ikastaldeen tamaina

Dimentsio honetan ere markatu dugun diferentzia errepikatzen zaigu. Izan ere, Ipar Europan aztertu ditugun unibertsitateetan ikasle kopuruak txikiak dira (gehienez 30 ikasle taldeko, baina batzuetan beste 20koak dira); hegoaldeko unibertsitateetan berriz taldeak handiak edo oso handiak dira (60tik gorakoak, baina batzuetan 100era iristen ziren).

Bai, zehazki ez dakit zenbat garen baina jende gutxi gaude klase bakoitzean. 10-15 pertsonak osatutako klaseak izaten dira, ondorioz, nahi eta nahi ez hartu behar izaten da parte gauza guztietan. Ikastolako klaseen antza gehiago hartzen diet gure unibertsitateko klaseei baino. (I1)

Gure kasuan ikasle kopurua ikasgaiaren araberakoa, dena den, ez gara asko, 25-30 inguru. Hala ere, "Media and Society" ez gara hain gutxi, eta teoria denok batera ematen badugu ere, seminarioa edo praktikak egiteko orduan klasea bitan banatzen du irakasleak eta talde bat berarekin joaten da gela batera eta beste taldea bere laguntzailearekin beste klase batera, beraz, praktikak egiteko orduan hemen ingeniartzen dituzte ikasle kopurua 20tik ez pasatzeko. (D2).

Gainontzekoen komentarioak irakurrita, uste dut Belgikan nahiko masifikatuta gabiltzala. Normalean 100 bat ikasle gaude gelan. Seminario moduan egiten diren klaseetan bi dozena inguru izango gara, baina gehienetan askoz gehiago gara. Behin, etzegoen denontzako tokirik, ta gelaz aldatu behar izan genuen!! Zortea daukazue, talde txikietan hobeto lan egiten delako. (J1)

Klaseak guztiz teorikoak dira nire kasuan. klasera iritsi, jesarri eta entzun, apunteak idatziz. Irakasle-ikasle arteko harremana, elkarriketa, klaseko partehartzea oso urria izaten da. zerikusia edukiko du klasean jende asko gaudela; izan ere, gutxien gutxien 60 bat ikasle gaude. Badira desberdintasunak klaseen artean noski, izan ere zineari buruzko klase bat dut, non pelikuletako film zatiak jarri eta komentatzen dituen...baina teorikotasuna 100%. Azterketa hau bera egin nuen lehengo egunean, eta 200 bat pertsona egongo ginen han...beraz... (A1)

Datuak aztertzean, geografian zenbat eta iparralderago izan hainbat eta talde txikiagoak aurkitu, eta alderantziz zenbat eta beherago hainbat eta handiagoak. Hala ere graduazio modukoa atzeman daiteke testigantzen artean, zeren Danimarkan eta Suedian baitira ikasle talderik txikienak, handixeagoak Ingalaterran, handixeagoak Belgikan eta azkenik, handienak Italian egon diren ikasleek aurkitu dituztenak. Halaber, zenbait unibertsitateetan egin behar den lanaren arabera (teorikoa edo praktikoa), taldeak erdibitu egiten dituzte lana eragingarriago izate aldera, horretarako giza baliabideak (irakasle laguntzaileak) dituztelarik.

Ikasle kopuruak zenbaki objektiboak eta hotzak izanik ere, eramaten bide gaitu irakas-ikas prozesuen antolamenduez galdetzera, azken testigantzak iradoki digun bezala. Horixe hurrengo atalaren auzia.

Irakas-ikas prozesuetan erabiltzen diren metodologiak eta modalitateak.

Gure ustez ikasle kopuruaren deskribapena abagune ezinhobea dugu unibertsitateetan dauden estilo pedagogikoak ikusi ahal izateko. Estilo pedagogikoaz mintzatzen garenean irakas-ikas prozesuetan eragina duten aldagai multzo batez ari gara, hala nola curriculumaren antolamendua (derrigortasuna versus hautazkotasuna), ikas-denboraren banaketa, ikasgaiaren prestakuntza modalitateak, metodologia didaktikoak eta ikasleen eta irakasleen arteko harremana. Ez dugu izari haez, aitzitik, modu isolatuan hitz egin nahi; nahiago dugu hurbilketa holistikoagoa egin unibertsitateen tankera pedagogiak atzemateko, beti jakinda estilo pedagogiko puru eta garbirik ez dugula aurkituko.

Estilo pedagogikoa osatzen duten izarien barrena Erasmuseko ikasleek topa dituzten errealtateak anitzak izan dira. Unibertsitate bakoitzean matrikula egiteko orduan zituzten aukeretatik hasita ustekabeak (atseginak eta desatseginak ere) izan dira eztabaida foroetako eguneroko ogia. Zein ikasketan sartu eta zein ikasgai aukeratu izaten da lehen kezketako bat, batez ere ikasketa baliokide gardenik ez dagoenean. Zentzu horretan esan dezakegu ikasleek unibertsitateetan aukera zabalak izan dituztela ikasgaiak hautatzeko, titulazioaren curriculum itxitik landa. Ez dakigu hautazkotasun zabal hau sistema osoaren ezaugarria ote den edo *eramusei* egiten zaien eskaintza, baina merkatu askatasuna ikasgai askatasuna bilakatu da unibertsitate inguruabarretan, eta kartara eskatzeko parada izan dute.

Erasmus ikasleok nahi ditugun ikasgaiak har ditzakegu (bakoitzaren unibertsitatea ados badago). Hau oso ondo dago ze horrela oso gauza ezberdinak ikasi ditzakegu aldi berean. Adibidez EHU n ezingo nuke antropologia eta zinea ikasi, dena kazetaritzara bideratuta dagoelako. (JI)

Ikasleek, noski, gustuko dute ikasgaietan hain aukera zabala izatea, bakoitzaren gustuekin konektatu egiten duelako noski. Une horretan sartzen gara bete-betean ikaslea bere buruaren eraikitzaile gisa eta bere etorkizunaren jabe gisa aldarrika dabilen diskurtsoa -kontsumismoaren paralelo hagitz arriskutsua, gure aburuz-. Beste ikasle batek ordea agerian uzten du, aukeratzeko ikasleen balizko heldutasun eta jabekuntza horren atzean nola sarritan beste gauza batzuk ezkututzen diren.

Honen abantaila argi dagoela iruditzen zait: hainbat ikasgai ezberdin eskaintzen badira, bakoitzak bere interesen arabera eraiki dezake bere bizitza unibertsitatean, azkenean bere burua non ikustea gustatuko litzaioken kontutan hartuz. EHUUn, ordea, eta nire kasuan behintzat, azken urterarte ezin izan dut hautazko ikasgaiak hartu. (B1)

Izugarri gustuko dut aukera guzti hauek izatea, nahiz eta gero, honek izugarritzko kaos bat sorrarazten duen, non inork ez dakien beste ikasgaiei buruzko ezer, non karrera desberdinetako jendea klase berebean juntatzen den. Gainera legea aldatu izanak, kaosa handitzen du oraindik gehiago.(lehen bost urte egiten ziren, orain 3,+ 2espezializazioa bailitzan edo), eta beraz, denok batera gaude irakasleari entzuten, baina berak eta nik ez ditugu gauza berberak ikasi behar, berak liburu bat edo bi gehiago irakurri behar ditu,gero kreditu gehiago eman behar dizkiotelako... Bueno ba hori, albokoari zerbait galdetzea ezinezkoa bihurtzen ari den klaseetan nagoela dirudi, izan ere ziur, berak ez dakiela zuk zer egin behar ote duzun!jajaja. (A1)

Ez gara gu izango hautazkotasunaren onurak ukatuko dituztenak, ez horixe. Hautazko gaiak egon behar dira eta ikasleek bide desberdinak zabalik eduki behar dituzte euren ibilbideak eginez joateko, bai. Gainera Erasmus bezalako programa batean aukera zabal hauek egoteari onuragarria deritzogu, kontuan hartuta gainera prozesu hauek puntualak eta salbuespenekoak direla (erasmusak pasadizoan daude). Beste gauza bat litzateke horrelako planteamenduak unibertsitateen arau bilakatzea, hau da, ikasgaien ikaskuntza eskaintzaren eta eskaeraren arabera makurtzea, beste irizpiderik gabe. Ez gara bide honetatik luzatuko, baina orientazio beharra nagusitzen zaigu, ikasleari erabaki arrazoituak hartzen laguntzeko eta ez zoriz edo “gustu” hutsez aukeratzeko joan dadin.

Behin ikasgaiak aukeratu ondoren, ikas-denboraren antolamenduaren gaiarekin egiten dugu topo. Izan ere, denbora antolatzeko moduak eta irizpideak berriz ere antzatz dira, eta antolamendu horrek dakarren jardueren izaera bera ere bai. Orokorrean gure ikasleek ikastaldi bakoitzean izan dituzten ikasgaiak, UPV/EHUko ikastaldi arrunt batean matrikulatzen dituzten ikasgai kopuruaz erkatuz, gutxiago izan dira (bataz bestez hiru ikasgai eta hizkuntza ikastaroa). Nolanahi ere, ikasgaiok denboran zehar antolatzeko moduak honakoak izan dira:

- a) Gure unibertsitatean dugun antolamendua, alegia, ikasgai desberdinak egunero.
- b) Ikasgai bakoitzari egun oso bat ezarri, horrela ikaslearen egutegian guztiz definituta geratzen da egunero landuko duten diziplina

Lauhilabete bakoitzean lau ikasgai ditugu. Asteko egun bakoitzean bat, alegia, astelehen guztietan X, astearteetan Y... eta egun bat libre. Niri hau izugarri gustatzen zait, lanen bat bidaltzen badizute aste bat duzulako ondo antolatzeko. Klaseak bastante laburrak dira, 3 edo 4 ordukoak, beraz, ezin gara kexatu! Hala ere, hemen batez ere gehiena praktikoa denez eskolaz kanpo egin behar da lan. (D2)

c) Hirugarren modua guztiz trinkoa da, alegia, ikasgaia hasi eta amaitu egiten da denbora jakin batean, aldi berean beste gairik ez dagoelarik.

Arhuseko kazetaritza eskolan kurtsua seihilabeteka banatzen da, internazionala behintzat. Orain lehenengo seihilabetean gaude suposatzen da kazetari internazionalak izateko ikasten ari garela. Ikasgaiak 3 astekoak dira gutxi gora behera. Niri aunitz gustatzen zait klaseak antolatzeko modu hau, era honetan errazago zentratzen zera egin behar duzun lanean eta gehiago inplikatzeko zera... (H2)

Ikasgaiak ere desberdin aurkezten dira herrialdetik herrialdera eta beste izari batzuetan gertatu zaigun legez hemen ere zeresan handia izan du iparraldeko multzoak. Izan ere, ikasgairen nondik norakoak guztiz definituta aurkeztu zaizkie ikasleei lehen egunetik. Planifikazio honetan jarduera motak, egin beharreko lanak eta epeak guztiz finkatu eta zorrotz betetzen omen dira ikasleen esanetan.

Antolaketa guztiz itxia da, ikasgai bakoitzaren hasieran egutegi bat bidaltzen digute irakasleek irakasgaiaren nondik norakoarekin, eta guztia oso zehaztuta egoten da (egunero, eta ordu bakoitzean zer egingo dugun azaltzen baita). Oso arraroa da egutegi hau aldatzea. Nik uste dut, hau Danesen izaerari dagokiola, dena kontrolpean eta ordenatuta izatea gustatzen baitaie. (H1)

Lehenengo lauhilekoan izan ditudan bi ikastaroetan ordutegi hori guztiz bete dugu. Gainera, ordutegi horretan egun bakoitzean emango duzun teoria, eztabaida, aurkezpena... ezarrita dago, beraz, klasera jun orduko badakizu zer emango duzun edo zer egingo duzun egun horretan. Ez dago inolako aitzakiarik "hau ez dut irakurri", "ez dut jakin hau egin behar zenik"... esateko, dena argi eta garbi ezartzen baitigute hasierako momentutik. (I1)

Kontrapuntua, hegoaldean, noski.

Ikastaro guztiak 30 ordukoak dira (astean 3) eta printzipioz ikastaro guztiak aurretik ezarritako programa bat ezarrita daukate. Batzuetan programa nahiko zehatza da, baina gehienetan orokorrean egingo den lana azaltzen da. Halere, gauza bat da aurretik programa bat izatea, ta beste bat programa hori jarraitzea. Askotan irakasleak ez du denborarik izan programa behar bezala jarraitzeko, eta azkenean planak aldatu behar izan dituzte. (J1)

Iparraldeko unibertsitateetan agertzen zaigun planifikazio zehatz honen ondoan badaude beste bi osagai elkarren osagarri direnak eta estilo pedagogikora egiten ari garen hurbilketa honetan guztiz definigarriak direnak: alde batetik ikas-jarduerak (modalitateak eta metodologiak) eta bestetik irakasle eta ikasleen arteko harremana.

Nola antolatzen da ikaskuntza? Esana dugu iparraldeko multzoan taldeak txikiak zirela eta testigantza batean aurreratzen zen moduan jarduerak ere ez ziren mugatzen klase magistraletara. Honakoak zerrendatu ditzakegu:

a) Ikastaldi teorikoak (Lectures). Normalean laburrak, beraz ikastaldiaren denbora osoaren zati txiki bat baizik ez dute hartzen. Mamia gai bati buruz azalpen teorikoa ematean datza, eta inoiz orientabide orokor batzuk baino ez dira geroko prozesuan ikertu eta sakondu behar direnak.

b)Ikastaldi praktikoak (Seminar). Denbora luzea hartzen duen modalitatea da. Bertan ikasleek banaka edo taldeka egin behar izan dituzten lanak aurkeztu, eztabaidatu, kritikatu edota osatu egiten dira. Gure solasguneko ikasle gehienek ikasketak informazio zientzietakoak direnez, zenbaitetan ariketa praktikoak artikuluen idazkuntzarekin edo web-guneen diseinuarekin zerikusia izan dute, baina ez beti zeren hautatu dituzten ikasgaiak aukera zabala dela medio ez baitira beti hertsiki lotuta komunikatzaileen jardun profesionalarekin (esate baterako zinea ikasten egon den ikasle baten jardun praktikoa filmak ikusi eta aztertzean zetzan).

Hala ere, modalitateetatik erator daitekeen daturik garrantzitsua gure ustez honako hau da: iparraldeko multzoan nagusitzen da nabarmenki ikaskuntzen izaera praktikoa, hau da, ikasleek "egiten" ikasten dutelako ideia gauzatzen da inguruabar desberdinetan, ikaslea irakaslearen hitza entzuten ikasten duelako ideiarene kaltez. Ikasleek esanguraz ikasteko euren ezagutza eraiki behar dutela da konstruktibismoaren oinarri sendotako bat, eta, horretarako ikasleak protagonismoa bereganatu eta ekintzan murgildu behar dela ukaezina da. Egia da hori egiteko talde txikiak behar direla, bestela irakasleak jai duela, baina aitortu behar dugu zenbaitetan talde txikiak ditugunean ere irakasleak, gure unibertsitatean, modalitate teorikoak (klase magistralak) aukeratzera jotzen duela (agian prestakuntza pedagogiko faltagatik) eta ikasleak entzun eta apunteak hartzearen rol pasiboan ere batzuetan erosoegi sentitzen direla. Gure ikasleek iparraldeko unibertsitateetan aurkitu dutena oso bestelakoa da zentzu horretan, eta rol berri bat, aktiboa, eraiki behar izan dute irakasleekiko harremanean.

Beste alde batetik, unibertsitate honetan teoria eta praktikaren arteko oreka perfektua aurkitu dutela iruditzen zait, seminarrei esker batez ere. EHUk klase normalak daukagu gehienetan, apunteak hartu eta listo. Hauek "lectures" deitzen dira hemen, eta ikasgai bakoitzak lecture bat dauka astero gutxienez, alde teorikoa betetzen duena; alde praktikoa seminarrek betetzen dute, astean behin edo bi astero ematen direnak. Hauek prestatzeko, testuak irakurri, aurkezpenak prestatu, debateak burutu,... eta beste hainbat gauza egin daitezke. Horrela, teoria berria ikasteaz gain zure ikuspuntua emateko aukera dago, eta klaseak dinamikoagoak egiten dira. Honez gain, nahiz eta astean zehar klase gutxi daukagun, etxean testu pilo bat irakurri behar dira, gehienetan denbora asko eskatzen duena (oso testu konplikatuak dira; zailak dira britainiarrentzako, imajinatu guretzat). Honen abantaila, zeure denbora antolatzen ikastera laguntzen zaituela da. (B1)

Nik lauhileko bakoitzean bi ikastaro ditut eta lehenengoko lauhileko ikastaroei dagokienez, nahiko praktikoak izan dira. Gehienetan, klase bakoitzaren hasierako partean, irakasleak zenbait azalpen ematen ditu, ondoren atsedendia egiten da eta bigarren partean, ikasleak izaten gara protagonista: aurkezpenak eginez, besteek aurkeztutakoa komentatuz, maisuak hasieran azaldutakoa eztabaidatuz, bideoak ikusiz... Beraz, ikasleak izugarri parte hartzen dutela aipatzekoa da. Bestalde, taldeko lan asko ere egiten dira, aurkezpen asko taldeka baitira, nahiz eta azken finean, azken nota jartzeko orduan, azterketarik ez dugunez, bakarkako lan potolo bat egin

beharra dago. Beraz, nahiko ikastaro "konpletoak" direla esango nuke, bakarka, taldeka, klasean eztabaidak... aukera asko dago. (I1)

Irakasleek zenbait baliabide material eta metodologiko erabiltzen dute:

a)Goian aipatu dugun aldez aurretiko planifikazio zehatza, egunez egunekoa, egin beharreko guztiak jasotzen dituen eta bete-betean aurrera eramaten dena. Planifikazio hau ikasleei ematen zaie lehen egunetik eta eskura daukate etengabe Interneten.

Gurean asko erabiltzen da internet. Izan ere, gure web gunean (zentrukoan) badugu zerbitzu berezi bat "First class" izenekoa. Bertan, eztabaidak egiteaz gain, ikasgai bakoitzerako behar ditugun materialak eta laguntzak aurki ditzakegu. (...) Bestela, oso ondo dago kontua. Informaziorik behar baduzu, bertan dago. Hurrengo klaserako zer irakurri jakin nahi duzunean, bertan dago ere eta deskargatu dezakezu. Beraz, oso baliagarria da. (I3)

b)Taldekako lana. Ez dago estrapolatzerik zenbatekotan, baina nabaria da taldeetako lanek horrelako modalitate praktikoetan hartzen duten garrantzia. Ikasle talde bakoitzak ondo zehaztutako eginkizuna du ezarria, eta horretarako denbora ere ematen zaio (gogora dezagun ikasgai kopurua txikia dela eta ikastalde teorikoak ere bai). Talde bakoitzak egin duen lana ikastaldi praktikoan komunikatzen da eta feedback handia egiten bide da elkarrengandik eta irakaslearengandik.

c)Bakarkako lana. Taldekako lana egoteak ez du beti banakako lana desagerrarazten. Batzuetan lana taldeka egiten da baina azken produktua banakakoa edota azterketa egiten da (ez dugu atzeman eredu finko esanguratsurik).

d)Aurreko biak egin ahal izateko klasez kanpoko denbora luzea dute, zeinetan baliabide materialak (behar den informazio guztia, Interneteko lotunea eskura, lan egiteko lekuak eta ordutegi zabalak) eta irakaslearen laguntza ziurtatuta dauden.

e)Irakasleek baldintza guzti horiek jarrita ikasleak lanean jartzen dituzte, talde bakoitzak bere prozesua eta bere produktua eginez.

Iparraldeko multzoko gure ikasleek asko idatzi dute gure foroetan gai hauei buruz. Arestian aipatu harridura nabarmentzen dute bai Hego European dauden ikasleen esperientziekin erkatu ondoren, baita UPV/EHUtik zekarten esperientziarekin konparatuz gero.

Ikastetxe honetan taldeko lanei garrantzi handia ematen zaie, eta horren ondorioz egin beharreko lan guztien %80 taldean egin behar dira. Ondoren taldean eginiko lan guztiak klasean azaltzen dira, eta guztien artean kritika, edo "feed-back"a egiten dugu, horrela besteen akatsetatik ikasteko asmoz. Klase teoriko oso gutxi izaten ditugu, ikasi beharrekoa"feed-back" hauei esker ikasi behar dela suposatzen baita. (H1)

Ez dakit nola den beste karreraren kasuan, baina soziologian ikasgai

gehienetan koilara ahora eramaten dizute. Apunteak kopiatu, buruz ikasi eta azterketa egin. Hemen, ordea, klaseetan puntu batzuk baino ez dizkizute ematen, eta klasetik kanpo liburuak bilatu eta irakurri egin behar da. Seminarretan antzera, testuak irakurri eta eztabaidak egiten dira. Hauxe izan zen nire lagunaren arazoa, hau ez zela oinarritzen apunteak kopiatzean han egiten den bezala (edo apunteak norbaiti eskatzean, irakaslea ulertzen ez baduzu), baizik eta berezko lan asko eskatzen du, eta ingelesez eztabaidatzeko kapazitatea. Alde txarra, lan asko eskatzen duela, noski. Alde ona, gehiago ikasten duzu, interes gehiago jartzen duzu ikasgaiari (gustatzen zaizkizun ildoak aurkituz), ez duzu ikasgai osoa azterketa bakarrean jokatzen eta azterketara ere prestatuagoa joaten zara, errazagoa baita zuk zeuk ikertutako datuak gogoratzea beste norbaitek diktatu dizuena baino. Horrela, seminarretan eta lanetan gehiago oinarritzen diren ikasketak eta ingelesa konbinatuz, ingeles maila igotzeko eta ikasgaiak gustura egiteko aukera ona dagoela uste dut. (B1)

Artikulu bat idazteko gaia ematen dizute, oinarri bat behintzat, eta hortik aurrera zure esku dago dena, nola enfokatu, informazio iturriak bilatu... HOR KONPON MARIA ANTON" teknika ibiltzen da...jejeje, baina noski laguntzarik behar izanez gero beti hor daude laguntzeko, irakasleren batek ere eman digu bere etxeko telefonoa. (H2)

Hegoaldeko multzoko unibertsitateetan ikasleek izan duten esperientzia aurretik ikusten hasiak gara, eta modalitateei eta metodologiari dagokienez ez digute ezer berririk ekartzen. Interneteko erabilera ere askoz ere murriztagoa da, antolakuntzako informazioa ematera mugatzen da, eta ez dio ikasgaiari behar bezalako sostengurik eskaintzen.

Ikastaroak oso teorikoak dira, batez ere ikasle asko dauden klaseetan. Horregatik bakarkako lanean oinarritzen dira batez ere. Lehenengo lauhilekoan egin ditudan bederatzi ikastaroetatik, bat mintegi moduan antolatuta zegoen, eta hala ere oso klase teorikoa zen. Talde lana ikastaro bakar batean egin dugu. (J1).

Nirean berriz, ordutegi, bulego, tutoretza ordu, klase aldaketa....edozer dela ere interneten begiratu beharrekoa da. Nahi izanez gero, nire fakultateko webgunea: <http://www.comunicazione.uniroma1.it/>. Bertan, gero, bakoitzak bere orria eraiki dezake (beharko luke) jarraitu nahi diren klaseetan izenemateko, eta baita gero azterketara apuntatzeko ere. Askotan hori egin gabe ezin zara azterketara aurkeztu, beste askotan eztu ezertarako balio...irakaslearen arabera beti ere. (A1)

Orain arte luze mintzatu gara antolakuntza administratiboaz eta pedagogiaikoaz, baita ikusi ere zein prozesu desberdin eratortzen diren gauzak modu batean edo bestean egiten direnean. Dena den aurretik aztertu ditugun izari guztiak garrantzitsuak diren arren, gure ustez estilo pedagogikoan funtsezkoa dena irakaslearen eta ikasleen arteko harremana da, eta horretan ere markatu ditugun iparraldeko eta hegoaldeko multzoetako joerak arras kontrajarriak direla esango genuke.

Lehenik eta behin aipatu behar dugu heziketa prozesu guztiek giza harremana, hau da, pertsonen harremana, barne hartzen dutela. Guk ezagutzen dugun hezkuntza sisteman heziketa harremana, alabaina, lehen adineko ikasleekin lan egiten duten profesionalen kezketan eta ikerkuntzan nabarmentzen da, baina ikasleen adina aurrera joan ahala garrantzi hori lekualdatzen doa eta edukietan lerrotatzen da, heziketan harremanaren zentzua ia desagerrararaziz. Azken urteetan, gainera, kalitatearen azpikultura nagusitu eta ikastetxeen artean lehiakortasuna ezarri denetik ikasleen errendimendua hezkuntza onaren baliokide bihurtu da, ikasle eta irakaslearen arteko harremana bere zentzu sozialaz eta gizakioiaz hustuz eta edukien tresna ahalik eta eraginkorren bilakatuz. Asmo hutsalak benetan, belaunaldi berrien heziketaz ari bagara, instrukzio soilak baina haratago doanaz alegia.

Gure unibertsitatean eduki zientifikoen transmisioan oinarritutako irakaskuntza da eredu nagusia eta ondorioz irakasle ona edota kalitatezko irakaskuntza diziplina jakin batean aditua, ahalik eta adituena, izatean bide datza. Honelako filosofiaren arabera, noski, ikasleen eta irakasleen arteko harremanaren planteamenduari toki gutxi uzten dio, irakasle bakoitzaren uste, gogo edo jarrera onaren zoriz utziz. Zenbat irakasle engaiatzen da ikasleekiko harremanetan? Zenbatek jarraitzen dio ikasleari garapenari eta egoera jakinari? Zenbatek egiten du jarraipen kezkatu eta lagunkoia?

Iparraldeko multzoko ikasleek artez espermentatu dute begiz begiko harreman hori, irakaslea adituaz gain laguntzailea eta tutorea den horretakoa, ikaslearen ibilbidean zurkaitzak jartzen dituen (Ipar Euskal Herriko esamoldeaz). Hori errazteko irakasleek harremanetan jartzeko bide guztiak eskaintzen dizkiete ikasleei, baita hauek behar dutenean askatasunez erabili ere.

Maitek azaldu duen bezala, irakasle eta ikasleen arteko harremana oso estua da. Lehenengo egunetik zure izena jakiten dute (oraingoan ez da oso zaila 9 bakarrik baikara klasean) eta zure ibilbidea guztiz gertutik jarraitzen dute. (H1)

Irakaslearekin duzun harremana Maitek esan bezala oso hurbila da. Hasiera batetik esaten dizute beraien e-maila zein den eta beraien bulegoa. Egia esan, lehenengo lauhilekoan izan ditudan bi maisuetatik batek, sarritan bidaltzen zigun e-maila, batez ere Erasmus ikasleoi, bere ikastaroari dagokionez egin beharreko gauza guztiak azalduz: matrikula, liburua non erosi... Edozein kezka izanez gero ere, argi eta garbi dago ez dutela inolako arazorik e-mailen batetara erantzuteko edota beraien bulegora joateko ordua emateko. Irakasleen aldetik, ez dut inolako arazorik egia esan. (II)

Portaera hauek oso hedatuta daude iparraldeko multzoan, alegia, irakasleen eskuragarritasuna eta jarrera zabala ikasleekiko harremanetarako, baita espazio informalen erabilera harreman hauek sustatu eta finkatu ahal izateko ere (kafetegian, afarian...). Gure ikasle batek gainera hain harreman estuen aurrean ez bakarrik harridura baizik eta nolabaiteko ezerosotasuna azaldu digu, ondorengo testigantza anekdotikoan irakur daitekeen legez

Hemen guztia oso kontrolatuta dago, adibidez gaur klasera iritsi, eta tarta bat zegoen kandela eta guzti. Zer izango, eta andereñoak gure paperetan jaiotza

datak ikusi, eta guztion urtebetetzeak markatu ditu, eta tarta bat ekarri du, gaur baten urtebetetzea baitzen. Arraroa izan da, ikaskide gehienok ez baienekien ezer, eta ordea andereñoak bai. Horra hor noraino iristen den hemen ikasle irakasle arteko harremana (kontutan hartu behar da 10 bakarrik garela klasean). Harreman hau ez dago gaizki, baina batzuetan agobiantea ere bihurtu daiteke. (H1)

Pasadizo honetan ikasleak agertzen duen aztoramendua ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu hemen dugun sozializazioa oso bestelakoa dela; hegoaldeko multzoko unibertsitateetan ikasleek izan duten harremana anonimoagotik gertuagokoa hain justu.

Irakasleek oso harreman gutxi dute ikasleekin klase orduetatik kanpo. Haiek beren bulego orduak dituzte, baina ia gehienetan ez daude han. Arazoren bat badugu internet bidez galdetzen diegu. (J1)

Irakasle bakoitzak tutoretza orduan ezarriak ditu, bere bulegoan, eta hortik kanpo, hitz gutxi. Esan bezala, klaseko feedbacka txikia da, masa klase hauen ondorioz, suposatzen dut. Halere, klase bakoitzaren ostean joan izan naiz galderak luzatzera. (A1)

Laburbilduz, Ipar European gure ikasleek ezagutu dituzten esperientzietan irakas-ikas prozesuek izaera praktikoa handia dute, metodologia aktiboetan oinarritzen dira eta ikasleen lana (bai pertsonala bai taldeetako) ikaskuntzaren giltza da, horretarako euskarri material egokiak eta eraginkorrak zein irakasleekiko harreman hurbila eta engaiatua funtsezkoak baitira. Hegoaldekoetan berriz irakas-ikas prozesuak edukietan ardaztuta agertzen zaizkigu eta neurri horretan irakasle-ikasle harremanak apenas duen lekua ikaskuntzaren garapenean. Gure ustez, unibertsitateko irakasle gisa, estilo pedagogiko hauek sakonago aztertu beharko genituzke eta gure praktikekin erkatu, batez ere ikasleentzat zein praktika den hezigarriena adostu ahal izateko, eta zentzu horretan lanean laguntzen ez diguten praktikak kritikatu eta baztertzeko. Irakasleak ez du bere irakas-praktikak bere burutik eta pentsamendu soiletik eratu behar, ikasleentzat hezigarriak diren neurritik baizik. Zentzu horretan gauza asko aldatu behar dugula susmatzen dugu.

Hizkuntzen menderakuntza

Eramuseko ikasleak kanpora joatean aurkitzen duten lehen oztopoa komunikazioarena da. Gure ikasleen kasuan iparraldeko multzoan egon direnek ingelesa izan dute komunikaziorako edota ikaskuntzarako hizkuntza; multzo honetan gainera ingelesa lehen hizkuntza (eta bakarra) duten herrialdea dugu (Erresuma Batua) eta bigarren hizkuntza duten herrialdeak (Danimarka eta Suedia). Hegoaldeko multzokoek berriz italiara eta frantsesa izan dituzte ikaskuntzarako eta komunikaziorako hizkuntzak.

Egia da ikasleek Euskal Herritik irteteen daramaten hizkuntza ezagupen maila arras desberdina dela. Iparraldeko multzoan ikasleek euren hizkuntz mailaz zuten pertzepzioa ona zen, hau da, denek espero zuten ingelesez ondo moldatzea alde zurretik urteetan ikasi dutelako eta zenbaitetan ingeles titulua (*First Certificate*

normalean) izaten dutelako. Hegoaldeko multzoan berriz ezagupen maila duten ikasleez gain beste herrialde batera hizkuntza ezagutu gabe ere joan direnak badaude (hau italierekin gertatu izan da eta ikasleen arrazoinamendua transferentziarena izan da, hau da, gaztelera jakinda erraz molda zitezkeela italierekin ere). Paradoxikoki bi multzoetatik hizkuntzarekin traba gehien azaleratu duten ikasleak iparraldeko multzokoak izan dira, nahiz eta trebatuen zeudenak izan. Azter dezagun, beraz, auzia.

Danimarka eta Suediara joan diren ikasleek euren kideengan atzeman duten ingeles maila oso altua izan da. Denek bat egiten dute esatean herrialde horietako ikasleen ingeles maila eurek daramatena baino askoz ere altuagoa dela, beraz, ingelesez (bigarren hizkuntza izanda ere) irakasten diren eta matrikulatu ahal dituzten ikasgaietan ahalegin handia egin behar izan dutela komunikazio maila ertaina izateko. Gainera kontuan hartzen badugu unibertsitate horietan, hain justu, ikasgaietan erabiltzen diren metodologiak eta jarduera motak parte-hartzaileak direla ikasleek ulerkuntzaz landa adierazkortasun maila altua behar dute agintzen zaizkien lanak egin ahal izateko. Hasieran honetaz ohartzeak eta komunikaziorako oztupoak gaudituz behar izateak antsietatea sortarazi zien, baina beldurra kenduz gero eta lanari ekinez aurrerakuntzak denbora tarte ez luzeegi batean igartzen hasten direla esaten digute.

Onartu behar dot ez nuela pentsetan hau hain zaila izango zenik, ingelesa ikastolan txikitatik, First-eko titulua...Baina hona heltzian konturatu nintzan tituluak ta istoriak ez dizela ezer! Ingelesen azentoa ulertzeko benetan gaizki pasatu nun hasieran, egia esan, lehenengo egunetan askotan baietz esaten nun tuttik ulertu gabe. (...) Benetan harritu nauena beste herrialdeetako ikasleek duten ingeles maila da, benetan izugarria da! Ia nik kurtsu amaierarako behintzat euren maila eukitzea lortzen dodan!!! (D2)

Arazoak, ingelesik ez dakizunean iristen dira, guri bezala. Esan bezala hemen jende guztiak oso ingeles ona hitz egiten du, horretaz gain, gure gelakide diren atzerritar gehienek jada kanpoan pasa dituzte urteren batzuk (hemengo gazteen artean bidaiatzea oso oso ohikoa baita) eta guztiak ingelesako maila oso ona dute. Gu hona iritsi ginenean gure "first"-eko titulu eta guzti, uste genuen beste guztiak gure antzera egongo zirela, guk maila ona genuela uste genuen, ja! Lehenengo klase eguna iritzi zen arte. (H1)

Herrialde hauetan bertokoek duten ingeles ezagupen altua ulertzeko gako garrantzitsu bat unibertsitatean bertan, besteak beste, dagoen hizkuntza plangintza da. Izan ere, danieraz edo suedieraz gain badute ikasgai batzuk ingelesez ikasteko aukera eta horrelakoetan trebakuntza, zer esanik ez, oso nabaria da.

Ni ere ados nago zuekin, ideia ona izango litzateke EHU-n ingelesez ikasteko aukera izatea. Egia esan, hemen ohartu naiz nire ingeles maila, gainontzeko herrialdeetako lagunekin konparatuz gero, nahiko eskasa dela. Hona heldu nintzenean harrituta geratu nintzen, zelan mintzatzen diren Suekoak ta Finlandesak (ta orokorrean, denak) ingelesez!!! (...). Izan ere, ia herrialde gehienetan unibertsitatean (ikasgai batzuk behintzat) ingelesez ikasteko aukera dute, beraz, honi dagokionez apur bat atzeratuta gabiltza EHU-

n...(...) Nire pisu-kideei galdezka ibili naiz ia euren unibertsitateko sistema nolakoa den, eta Suezikoa ta Norbegiakoa azaldu didatenez eurak unibertsitatean ikasgai batzuk euren hizkuntzan dituzte eta beste batzuk ingelesez. (D2)

Esan beharra dago hasieran ikasleek ingeleseko oinarrizko ezagupenak dituztela, segituan erreparatu ziotela beste ikaskideekiko zuten diferentziari, eta lana dela medio, bukaera aldera oso positibotzat jotzen dute esperientzia. Horretarako erabilitako estrategien artean gaztelerez mintzatzen direnetik bereizi eta lagun kanpotarrekin batzea, mintzatzeko lotsa gainetik kentzea, edota lanean ordu luzeetan aritzea, aipatzen dituzte.

Nahiko erraz egin nintzen hirira eta lagunak oso azkar egin nituen, egia da hasieran espainolekin ibiltzen hasi nintzela, besteak bezala, baina pixkanaka koadrila berria egin nuen. Lagunen kontua erabaki pertsonala da, argi izan behar duzu nahi duzuna, eta nire kasuan "atzerritarrekin" ibiltzea erabaki nuen. Uste izan nuen modu honetan nire esperientzia aberasgarriagoa izango zela eta hala da, erabaki egokia hartu nuen. Gogorra da hasieran euskara eta gaztelera ahaztea eta goizeko seietan ingelesez mintzatea, baina gero oso harro sentitzen zara zure buruaz, badakizulako, soziologiatik gogoratzen duzuna praktikan jartzean, hasieratik lagun atzerritarrak egin ezean espainolekin ibiliko zarela urte osoan. Araua betetzen da, espainolekin ibiltzen hasi zirenek eta arin aldatu ez zutenek jarraitzen dute euren lagun talde berarekin ibiltzen eta jende asko ezagutzeko aukera galtzen dute. Horren arrazoi erraz bat hizkuntza da, talde hauetan erdaraz aritzen dira eta modu honetan oso gatza egiten zaie atzerritarrei parte hartzea, normala ezta? (I3)

Bestela ingelesarekin ez dugu arazorik, ederki moldatzen gara, eta eskoletan jada hainbat eztabaida solasaldi eta aurkezpenak egitea tokatu zaizkigu; eta ederki. Hemen sekretua lotsa alde batera uztea dela deritzot, eta "soltatu". Denok dugu ingeles base bat, eta berau erabili eta praktikan jartzea besterik ez zaigula falta pentsatzen dut. Horretarako lotsa galdu eta hiztegi bat gure aldamenen baizpare! Bestela nik bai sumatu dudala aldaketa bat etorri nintzenetik, abuztuak 1-ean (ei!!!! gaur 100 egun Aarhusera etorri giñela!!!!!!) Jada errazagoa egiten zait jendea ulertzea eta lasaiago hitz egiten dut ingelesez (lasaiago diot, ze oraindik ere, asmakuntza mila egiten ditut ingelesarekin).. (I2)

Hasieratik hasi ginen fuerte eskolan...ai ama zenbat ordu ordenadore aitzinean...hura desesperazioa ingelesez 100 hitz txar idazteko...nahi eta ezin, beti burrukan. Bazkaldu gabe gelditzen ginen maiz artikulua idazteko, etxera ailetu eta artikuluaekin gotti eta betti.. (H2)

Batzuentzat gogorragoa izan da, beste batzuentzat errazagoa, baina gure foroetan egon direnen artean prozesua burutzea lortu dute guztiek, nahiz eta badakigun beti ez dela horrela gertatzen. Hegoaldeko unibertsitateetan egoera samurragoa da, ikasleak moztortuago daudelako ikasle kopuru handien artean eta transferentziaz baliatuta errazago moldatzen dira hizkuntza mintzatuaren bederen.

Nire egoera apurtxo bat desberdina da. Nagore, Naiara ta Begok, ikasten duten herrialdeko hizkuntzaz zerbait badakite, nik, ordea, ezer ez. Italian nago eta hemen, noski, italiara da nagusi. Erraza zelakoan edo... hona etorri aurretik ez nuen inolako ikastarorik egin. Heldu eta aste batera pisua aurkitu, eta lau italiarrekin hasi nintzen bizitzen. Imajinatu, ni italiereaz hitz egiten saiatzen eta eurak gaztelaniaz hitz egiten ahalegintzen, itzelezko barreak... (A2)

Ni Bordelen nago eta frantsesa eta gaztelarearen antzekotasuna dela medio ez gabilza oso gaizki. Egia da kurtsoa euskaraz bezala ezin dugula jarraitu, ulertu eta apunteak hartu, biak batera nahiko zaila da baina beno, poliki poliki lortuko dugula espero dut. Unibertsitatean argi ikusten da kanpotarrak garelara eta astiroago hitz egiten digute bai eta kalean ere. (E1)

Hizkuntzaren (ingelesaren, zehazkiago esanda) auzi honetatik atera daitekeen ondorioz nabariena, hizkuntza politikari dagokio. Euskal Herrian zenbait saretan sartua da jadanik egitasmo eleanitza, elebitasunetik haratago doana, baina ingelesaren ikaskuntza ez da erraz suertatzen. Hizkuntzetako hasierako ezagupenez gain, zenbait ikasgai ere hizkuntza horretan matrikulatu ahal izatea bide bat izan daiteke, jadanik hezkuntza ez-unibertsitarioan jorratzen den bidetik jarraituz. Zer esanik ez, arlo honetan oraindik ere asko ikertu behar dela eta esperientzia gehiago metatu behar dela, baina datuak hor daude: ingelesaren ezagupen maila txikia da oraindik Europako hegoaldeko herrialdeetan, gurea barne.

Zentzu honetan, UPV/EHU unibertsitate elebiduna izanik zenbait abantaila dugu gai honi heltzeko: batetik, bi hizkuntzatan murgiltzen diren milaka ikasle eta irakasleen bizipen metatua eta ikasketa planetan hizkuntza berri bat (euskara) sartzearen esperientzia ditugu; bestetik, prozesu horien onurez zein zailtasunez jabetuta gaude.

Ikasketen orientazioa

Informazio Zientzietako ikasleen artean lizentziatura bezain zaharra da ikasketak oinarri teorikoetara hala formakuntza profesionalera bideratu behar ote diren eztabaida. Hitz gutxitan, eta seguruenik termino sinpleegietara itzulita, ikasketa teorikoen eta praktikoen dikotomia gisa aurkezten da eztabaida hau, ikasle gehienek bigarrenen alde egiten dutelarik. Begirada horretatik ere behatu dituzte, Erasmusekin joandako ikasleek, egokitu zaien unibertsitateko ikasketak, eta errealitate ezberdinekin topo egin dute. Lehenago azaldu dugun legez atal honetan ez dugu nahikoa informaziorik iparraldeko eta hegoaldeko unibertsitateen arteko bereizketarik egiteko; beraz ondorio nagusiak ateratzera mugatuko gara.

Hasteko, esan dezagun batzuek praktika profesionalera guztiz bideratutako ikasketak aurkitu dituztela beren ikastaroetan:

Gure asignaturak, guztiz praktikoak dira, kazetarien bizitza egitera behartzen gaituzte sarritan, egunean 8 ordu inguru eskolan eta batzuetan ordu gehiago sartu behar ditugu artikulua idazten. Elkarriketa errealak egin behar dira, era guztietako jenderari. Bada jendea, gero artikulua hoiak zuzenean

egunkarietara saltzen dituen, hau da free-lancerak bezala. Ondorioz lan serioak egin behar dira. Telebista ere hala omen da, egun guztia kamara hartuta dabilta, eta dokumental bat grabatu (hiru asteko epean)... Guztia oso praktikoa, baina eta ondoren guztion lanak azertu, eta ondorio teorikoak ateratzen ditugu. (H1)

Kasu horietan, ikasleek nabarmen uzten dituzte UPV/EHUn aurkitutako hutsuneak, praktikei dagokienez. Baina era berean, modu positiboan baloratzen dute jatorrizko unibertsitatea, atzerrian aurkitutakoa hemen dutena baino pobregotzat jotzen dutenean. Eta esan beharra dago toki batean baino gehiagotan aurkitu dutela horrelakorik. Kasu hauetan, UPV/EHUK eskeintzen diena ondo baloratzera jotzen dute:

Beste nonbait esan dudan bezala, gure ikasgaiak oso dira teorikoak, eta gehien bat testuak (idatzizkoak edo ikusentzunezkoak) aztertzea izaten da gure lana. Ikusentzutezkoen eta gizartearen arteko erlazioa aztertzen da gehien bat. Badirudi jende honek etorkizun batean komunikabideetan lan egingo duela, baina ez dute inongo oinarri praktikorik izango, ez dute editatzen jakingo ez kamara bat nola pizten den ere. (D1)

Hemen gehien bat teoria egiten dogu, ez dugu kamara, estudio...edo holakorik ikusi! (...) ez dakit nola moldatuko diren nire gelakideak telebista baten barruan, izan ere, dena azertu, azertu, azertu...da, eta nibela bastante baxua dela esango nuke nik. (D2)

Adibidez gaur Italiako erasmus batekin egon naiz hizketan eta editatzen nekiela esan diodanean harrituta gelditu da. Ni bezala, kazetaritzako azken kurtsuan dago, ta orain arte ez du editai mahai bat ere ikutu! Esan didanez, bere unibertsitatean (Italiakoan) irakaslea puntual etortzen bada, horrekin konforme gelditu zaitezke ta ez daukate inongo materialik. Berarekin hitzegin ondoren konturatu naiz Leioan ez gaudela hain gaizki. Eraikina polita edo itsusia bada, ez du hainbeste axola. Garrantzitsuena lanerako materiala eta ganorazko irakasleak eukitzea dela uste dut, ta nire ustez Leioan gauza biak aurkitu ditzazkegu. (J1)

Horrela, atzerrian ikusitakoa jadanik ezagutzen dutenarekin eta beste solaskideek beren harrerako unibertsitateetan aurkitutakoarekin erkatuz, eztabaida interesgarri batera iritsi dira gure solasguneko kideak. Nola lortu formakuntza teorikoaren eta trebakuntza praktikokoaren artean beharrezkoa den oreka?

Beste alde batetik, unibertsitate honetan teoria eta praktikaren arteko oreka perfektua aurkitu dutela iruditzen zait, seminarrei esker batez ere. (B1)

Aunitzetan kexatu izan gera (ni ere bai) EHUn ikasten dugunaz, zer axola zait niri Espainiako historia, publizista banaiz? Aurrekoan solasean egon nintzen neska danes batekin eta erran zidan eskola hau sobera praktikoa dela batzuentzat, eta hori lana bilatzerakoan nabaritzen dela. Egunkarietako nagusiek bilatzen omen duten perfila, esparru anitzetan jakinduria izatea da (gutxi bada ere). Ikusten denez, ez da hain errexa unibertsitateko asignaturen ibilbidea finkatzea... (H2)

Azken aipuan iradokitzen denez, kasu batzuetan praktika ugari aurkitu izanak eta beste batzuetan praktikarik aurkitu ez izanak gaiaren inguruko gogoetara eraman ditu ikasleak. Zalantzarik ez dugu gogoeta hau, atzerrian izandako esperientzia baloratzeko baliagarria izateaz gain, UPV/EHUn burututako ikasketen balorazioa eta berrirakurketa ere egiteko baliagarria izango zaiela. Azken finean, beste unibertsitate batean emandako ikasturteak atek ireki baitizkie beren hemengo errealitatea ere aztertzeke.

Ondorioak

Honaino iritsita, burututako lanak utzi dizkigun gogoeta nagusiak zirriborratzen saiatuko gara hurrengo paragrafoetan, beti ere unibertsitateko irakasle gisa dagozkigun ardurak hobeto ulertu eta bideratu nahian. Honetan, proiektuaren izenari men eginez, esan beharra dugu Erasmuseko ikasleekin ikasi egin dugula, eta haiekin ikasitakoak bi arlotara sintetizatzen saiatuko gara: bata, gure unibertsitateetik zer egin dezakegun atzerrira joaten diren ikasleen esperientzia are emankorragoa izan dadin; bestea, kanpoko esperientzietatik ikasiz bertan geratzen diren ikasleekiko gure lana nola hobetu dezakegun.

Lehenengoari dagokionez, egindako lanak nabarmen utzi du Erasmus programaren eskutik atzerrira joaten diren ikasleei behar administratiboak asetzen baino askoz gehiago lagun diezaiekeela jatorrizko unibertsitateak (gure kasuan UPV/EHUK), eta lagundu beharra duela. Oro har gure ohiko ikasleen premiak arlo administratiboa eta edukizko ezagutza gainditzen dituztela onartzen badugu, are argiago dago atzerrira joandako ikasleek bestelako behar batzuk ere badituztela. Besteak beste, bizitzen ari diren esperientzia berria gogoetatzeko eta interpretatzeko laguntza eskeini diezaieke jatorrizko unibertsitateak. Kontuan hartu beharra dago gazte batentzat urte erdi bat edo urte oso bat atzerriko unibertsitate batean emateak asko ekar dezakeela, eta hortik ezagutza esanguratsua eraikitzen laguntzea zein baliagarri izan daitekeen. Beste alde batetik, zenbaitetan behar emozionalak ere ageri zaizkigu gure eztabaidetan; ezin bestela izan norberaren etxetik, lagunartetik, herritik eta hizkuntzatik kanpoko egoera horretan. Gure proiektuan ikusi ahal izan dugunez, eta lehenago iradoki bezala, jatorrizko unibertsitateak behar hauei zuzenduta eman dezakeen laguntza ez dator Erasmus-en koordinatzailearen eskutik soilik, eta kideen taldean bertan ere aurki daitezke horretarako euskarriak. *Moodle* bezalako sareko plataforma malguk aukera paregabea ematen dute Erasmuseko ikasleen komunitate birtualak osatzeko, denon arteko elkarrekintzaren bitartez kideei sortzen zaizkien beharrak asetuz eta aukerak baliatuz. Honek, jakina, koordinatzaileen eginkizunak berplanteatzera garamatza, jatorrizko unibertsitatearekiko esteka administratiboa izatetik komunitate birtual horren dinamizatzaile izatera igaroz.

Bigarren atalari dagokionez, zer ikasia ugari dugu beste unibertsitateetatik. Gaude, sarriegitan ezkututzen ditugula geure ezintasun eta hutsuneak baliabide material zein pertsonalen eskasiaren aitzakipean, beste unibertsitate batzuetan daudenak gorai patuz eta gureak gutxietsiz. Proiektu honek ordea erakutsi digu baliabideak baliabide, ikasleek biziki eskertu dutela harrerako unibertsitateak haiei

emandako arreta, hau ona izan denean. Ikasle gehienek ekarpenetan egindako balorazioek alderdi hori nabarmendu dute, eraikinen eta baliabide teknikoekiko liluraz haratago: etorri berriekiko harreraren antolakuntza maila, irakasleen hurbiltasun eta prestutasuna, eskoletako parte-hartze aukerak eta abar, balorazio ugari jaso dituzten alderdiak dira; era positiboan presente egon direnean, eta era negatiboan haien hutsunea igarri denean. Kasu positiboetan, bestalde, arreta hori oso baliagarri suertatu zaie beren formakuntzan, hala arlo akademikoan nola garapen pertsonalaren arloan ere.

Honek guztiak zer pentsatua eman beharko liguke gure irakaskuntza-praktikaz. Ez atzerritik datozkigun ikasleei (erasmus, seneca, usac eta abarrak) ematen diegun arretari buruz soilik -horretaz ere bai-, baizik eta bereziki gure ohiko ikasleekiko harremana bideratzeko dugun moduz, neurri handi batean edukien transmisioan fokotuta, alde batera utzirik heziketaren bestelako alderdiak. Honi dagokionez, UPV/EHUko irakasleriaren prestakuntza falta susma daitekeelakoan gaude.

Oharrak

¹ Artikulu hau UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak 2005eko deialdian onartu eta finantzaturako izen bereko Hezkuntza Berritzeko Proiektuaren azken txostena da. Bestalde, anonimatoa mantentzearen hemen haien izenak aipatuko ez baditugu ere, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkiegu proiektu honen garapenean bolondres gisa parte hartu duten ikasleei.

² Ikasleek Moodle-ko foro idatzietan egindako ekarpenen azterketarako ikerkuntza koalitatiborako softwarea erabili dugu. Zehazki, QSR International enpresak ekoiztitako NVivo7 programa. Software hau erabili izanak aurretiaz ikusi gabeko hipotesi eta esplikazio berriak eraikitzea ahalbidetu digu.

³ Gure hasierako asmoa, aurkezten ari garen ondorioen txosten hau parte hartu duten Erasmuseko ikasleekin eztabaidatu eta erkatzea izan zen, horrela interpretazioa baliozkotuz. Zoritxarrez irailean bilera hau egitea ez zen posiblea izan (batzuek ikasketak amaitu dituztelako, eta beste batzuk ez zirelako oraindik ikastaro hasi berrietara bildu).

Erreferentziak

- Bogdan eta Bliken. (1982). *Qualitative Research for Education: An introduction to Theory and Method*. Boston: Allyn and Bacon.
- Bolivar, A., Domingo, J., Fernández, M. (1998). *La investigación biográfico-narrativa en educación. Guía para indagar en el campo*. Universidad de Granada.
- Bolivar, A., Domingo, J., Fernández, M. (2001). *La investigación biográfico-narrativa en educación. Enfoque y metodología*. La Muralla. Madril.
- Carr, W. (1996). *Una teoría crítica para la educación. Hacia una investigación educativa crítica*. Madril: Morata.
- Contreras, J. (1999). El sentido educativo de la investigación. In: Pérez Gómez, A., Barquín Ruiz, J., Angulo Rasco, J.F. (Ed.). *Desarrollo profesional del docente, política, investigación y práctica*. Madril: Akal. 448-463 orr.
- Gil Cantero, F.(1997): Educación y narrativa: la práctica de la autobiografía en la educación. *Teoría de la Educación*, 9. 115-136.
- Gil Cantero, F.(2000): Las bases teóricas de las narraciones biográficas de los docentes. *Teoría de la Educación*, 11. 159-181.
- Gil Flores, J.(1994). *Análisis de datos cualitativos. Aplicaciones a la investigación educativa*. Madril: PPU.
- Taylor S.J. eta Bogdan, R. (1992). *Introducción a los métodos cualitativos de investigación*. Barcelona. Paidós Básica.
- Woods, P. (1998). *Investigar el arte de la enseñanza*. Paidós.

Interneteko lotuneak

<http://moodle.org/>

<http://scpx74.sc.ehu.es/moodle/>

http://ec.europa.eu/education/programmes/socrates/erasmus/erasmus_es.html

Josu Amezaga Albizu josu.amezaga@ehu.es. UPV/EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakasle doktorea da, Komunikazio eta Gizarte Zientzietako Fakultatean. Bere ikerkuntzako ildo nagusia komunikazioaren eta talde-nortasunen inguruan kokatzen da. Bereziki komunitate diasporiko eta migrariet telebistaz egiten duten erabilera aztertu du, metodologia koantitatibo zein koalitatiboak erabiliz. Arlo horretako ikerkuntza bere irakaskuntza-lanarekin konbinatzen du, eta ildo honetan zenbait esperientzia berritzailetan hartu du parte. Horren emaitzetako bat, aldizkari honetan Idoia Fernandezekin batera argitaraturiko *Un aula abierta al mundo* (vol. 10) artikulua aipa daiteke.

Idoia Fernandez Fernandez idoia.fernandez@ehu.es. UPV/EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean Hezkuntzaren Teoria eta Historia Saileko irakasle doktorea da. Ikerkuntzako ildoei dagokionez, hezkuntzaren historian, etengabeko prestakuntzan eta metodologia koalitatiboan aritzen da nagusiki. *Oroimenaren hitza. Ikastolen mugimenduaren historia 1960-1975* eta *Hezkuntzako ikerkuntza partaidetzaren ikuspegitik: errealitatea pentsatuz eta eraldatuz* izeneko liburuen egilea da. Egun haurren babesgabetasuneko esparruan aritzen diren gizarte hezitzaileen egoera profesionala aztertzeko ikerketa bat zuzentzen ari da, Euskadiko Gizarte Hezitzaileen Elkargo Ofizialarekin elkarlanean.

Fecha de recepción: 11/06/2006

Fecha de aceptación: 23/10/2006